

Aretxagazeta


Aretxabaleta • 1995eko irailak 28 • 83.2ka •



■ Jubilatuen eguna

■ San Migelak argazkitan

■ Loramendiren liburua berrargitaratua



■ Azatzako Carlos Eraña



LAGUNA

Etorbizuna hemen dago, LAGUNA BREAK kotxe berrian



Ze deritzozu hilaren 24an egin zen ordu aldaketari?


Mertxe Oskoz
(Langilea)

Ez diot garrantzirik ematen. Ordua aldatu behar bada aldatu eta kito. Behintzat ordu bat gehiago lo egiten dugu.




Tomas Otxoa
(Langilea)

Ez daukagu zertan ordua aldatu beharrik. Eguzkiaren orduaz ibili beharko ginateke guztiok, lege zaharraren arabera.




Begoña Arana
(Etxekoandrea)

Ez diot garrantzirik ematen. Berdin dit ordua aurreratu ala atzeratu. Hori bai, zain egoten naiz noiz aldatu behar den.




Juan Ramon Altube
(Langilea)

Ez dit aldaketa haundirik suposatzen. Aldatu egin behar baldin bada aldatu egiten da eta kito.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Eskerrikasko

Agur térdi,

San Migel jaiak pasa zaizkigu. Aurten, "Herri Bazkari Intsumitua" antolatatu dugunon partez (Aretxabaletako Talde Antimilitarista) mila esker bazkarira azaldu zineten guztioi.

Bereziki egun horretan bazkaria egitea posible izan zedin lana egin zutenei eta bazkal ostean mahaiak jasotzen eta garbitzen gelditu zirenei ere mila esker. Guzti honez gain, kultur etxearen eta trikitilarien laguntza ere eskertzekoa da.

Bestalde, urriaren 8an Bermeon intsumiso eguna ospatuko dela gogoraraziz, bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Besterik gabe; beeeeeee...

Talde Antimilitarista

IRAILAK 30. JUBILATUEN EGUNA

Datorren zapatuan gure edadekoek omenaldia jasoko dute Udaletxearen eskutik. Bai, zoritxarrez Udaletxea da, Ongizate batzordea hain zuzen, urteroko omenaldi honetaz arduratzen dena eta ez Aretxabaleta herria. Momentu txarrak eta izerdi edarrak botatzen dituzte antolatzaileek, egun honetarako erregaluak eta laguntza lortzeko herriko denda eta enpresetan.

Omenaldi hau herriaren partetik sortu dadin ahalegindu izan da, baina zelan? Aldameneko herrian, Arrasaten (tristeza bada ere "betiko etsaira" jotzea, oraingo honetan zoriontzekoa da), omenaldi hau Elkarteekin koordinadorak antolatu eta aurrera erroten du; elkarte rekreatibo-kultural-gastronomikoak baino herrikoiaorik? Hantza Aretxabaletan elkarteak eta gastronomikoak badira, kultur ekintzei dagokienez barriz...

Hain gatxa da Elkarteekin Koordinadorearentzat, Aretxabaletako 6 elkarteak alkartu eta udaletxeari txanda hartzea antolaketan?. Udaletxetik kanpo antolatutako ekintzek, herriaren aldetik askoz laguntza haundiagoa jasotzen dute.

Omenaldia gutxigorabera miloi bat da, laguntzak kontutan hartu barik eta berau egunean bertan gastetan da; erakundetik kanpo antolatu ezkeru gastua askoz txikiagoa izango litzateke.

Nor ausartzen da lehenengo pausua ematen?.

Felis Beltran de Heredia

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. Zuzendaria: Iosu Urkia.
Erredakzio-kontseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Xabier Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga.
Inprimategia: Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

1995eko irailak 28 - 3. orr.



Loramendi poetaren liburu berrargitaratua



Loramendiren liburu berrargitaratua, liburuaren Azala Iñaki Garmendiak diseinatu du.

1994. urtean, LORAMENDI Elkarteak sortu zenean, zenbait atxabaltarrek liburu berrargitaratzeko proposamena egin zioten elkartekoei. Azken hauek Loramendi poetarekin lotura bat bazutela, eta, herrira begira lan garrantzitsua izan zitekeela pentsatu zuten. Kontutan izan behar da, herriko hainbat elkarte Loramendiren izena dutela, Loramendi dantza elkarte, Loramendi Elkarte berak ere bai, e.a. Horrela, Aretxabaletako Udaleko Euskera Batzordeak dirulaguntza agindu ondoren lanari ekin zioten. Hasiera batetan liburu urte hartako bukaera aldera kaleratzekotan ziren baina lana ondo egiteko epea apur bat luzatzea merezi zuela eta orain kaleratu da.

Loramendi poetaren liburu, 1961. urtean Aita Yurrek argitaratukoaren berrargitarapena da. Liburu hartan oinarritu diren arren aldakuntza batzuk egin dira. Alde batetik irakurterrezagoa egiteagatik, grafia oraingotu dute. Bestetik, sarrera barria erantsi diote, bere bizitza eta idazkerari buruzko zenbait argitasunekin. Guzti honez gain, Loramendiren bizitzako eta egin zaizkion omenaldietako zenbait argazki ere

gehitu dituzte eta irakurlearentzat lagungarri izango den hiztegitxo gehitu ere bai.

Bestela, liburu Loramendik "Zeruko Argian" idatzitako lanen bilduma da. Lehenengo zatia poesiek osatzen dute, hauek gehienbat natura, erlijioa eta amodioa dute gaitzat. Bigarren zatia, Loramendik etxekoei idatzitako zenbait eskutitzek osatzen dute.

Laguntza eskaini dutenei esker ona

Informazio guzti hau lortzen, laguntza haundia eskaini dute Loramendiren familiakoek, argazkiak, esku izkribuak edo eta bere bizitzari buruzko datuak eskaini dituzte. LORAMENDI Elkarteak bihotzez eskertzen die liburu berrargitaratzen lagundu duten guztiei, Loramendiren familiartekoei, Joxe Angel Irigarairi bere aholkuengatik, liburuaren zuzenketan zein hiztegia moldatzen larunbatero bildu diren bazkide kolaboratzaileei, Udalarari eman duen laguntza ekonomikoagatik eta eta liburuaren azal dotorea egin duena.

LORAMENDI Elkarteak 750 ale kaleratu ditu. Hauek zabaltzeaz Zabaltzen banatzailea arduratuko da. 1500 pezetan salduko da liburu eta Loramendi Elkarteak 1000 pezetetan salduko du bere elkartean.

Loramendi poeta gaztea

Joakin Arana Ezpeleta, Loramendi gaitzenaz ezaguna, Bedoñako Mendibitzu baserrian jaio zen 1907ko urtarrilaren 27an. Familian hirugarren zen, beste zortzi anai-arreben artean. Umetako denbora baserriko lan ugari eta eskola apurren artean pasatu zuen.

1920an Altsasura joan zen Filologia ikasketak egitera eta erderarik ez jakitetik kasik euskera galtzeraino iritsi zen. Nafarroako hainbat herritan mugitu zen filosofiako ikasketak bukatzeko, hala nola, Sangotzan, Lizarran, e.a. Hemendik, apaiztegira jo zuen. Baina ez zuen abade izateko guraria lortu; abade egiteko hogeita hiru egun falta zituela 1933ko martxoaren 23an hil zen eta, Donostian peritonisak jota.

Bedoñarraren poesia lanetan etxeko hizkuntza da oinarri. Baina bere hizkuntza ez da Bedoñako huts-hutsean, etxeko euskera ia galdu egin zuen eta. Irakurritako euskal liburuetatik berreskuratu zuen euskera eta autoreen joera barneratu.

Bere lanik aipagarrienak, 60 inguru, Lizarran zegoela idatzi zituen. 1930. urtean Zeruko Argian hasi zen bere lanak argitaratzen. Hainbat txapelketetara ere aurkeztu zituen olerkiak eta baita sariak irabazi ere, beste batzuen artean, Tolosan "Lizardi handia" saria, e.a.

Hiru zubi botako dira herrian

Deba ibaiak gure herritik pasatzen denean hainbat oztupo aurkitzen ditu bidean. Hori dela eta, Deba ibaia bideratzeko obrak egingo dira. Obra hauen kokagunea, 28 eta 30 gunetan dago. (Gaur egungo Ibarra futbol zelaiaren eta kiroletxearen inguruak). Tarte horretan hiru zubi botako dira.


Lehenengo zubia, lehen Markolera joateko erabiltzen zena da. Hau bota egingo da eta bere ordezkari oinezkoentzako bakarrik izango den beste bat eraikiko da, lehengoa baino puxkat beherago.

Bestetik, Ibarra futbol zelaira joateko dagoen zubia botako da. Hemen ere beste zubi bat eraikiko da, baina gaur eguneko zubiak baino desague kapazitate eta dimentsio haundiagoak dituena.

Hirugarrenik, kiroletxera joateko dagoen zubia desegingo da, bere ordezkari egurrezko zubi txukunago bat eraikiz.

198 milioitako aurrekontua duten obrak, Eusko Jaurlaritzako herri lan sailak burutu behar ditu.

Obrak azaroaren erdialdera hasiko dira.



Hiru zubietatik bat, kiroletxera joateko dagoena da. Hau bota eta egurrezko beste txukunagoa eraikiko da

Zaraia Zineman laster hasiko dira obrak

Herriko zinema, suaren aurkako baldintzak betetzen ez zituela eta, joan den urteko irailaren bukaeran itxi beharra egon zen. Lege horrek baldintza bereziak eskatzen ditu, emergentzia ateak, sute detektagailuak, erretzen ez den materiala egotea, e.a.

Zinemak beraz, aldaketa batzuk eskatzen ditu. Egokitze-obrak urrian hasiko dira eta 2 hilabete inguru iraungo dute. Beraz, hauek bukatzean, abendu aldera, zinema barriz zabaltzeko moduan egongo da eta atxabaltarrok izango dugu bertan ekitaldirik ikusteko eta egiteko aukerarik.

Kiroletxea

Kiroletxeak ere, kirol ekintzetatik kanpo gelditzen diren ekitaldiak egiteko arauak ez ditu betetzen. (Festibalak, kontzertuak, e.a.).

Kasu honetan ere, zineman bezala, suaren aurkako baldintzak ez ditu betetzen. Hemen ere aldaketa batzuk egin beharra dago eta zineman bezala obrak urrian hasiko dira. Hala ere, esan behar da, kiroletxeko obrek ez dutela oso iraupen luzea izango, kiroletxea, suaren aurkako baldintzetara egokitze egin beharreko aldaketak gutxi dira eta.

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

MATIKUA
Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



Joan zitzaizkigun San Migelak eta giro politean gainera. Zapatu goizez eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jendea ez zen etxean gelditu.


Ezin lau lerro haue-
tan egon diren ekintza
guztiak aipatu, baina
kalean ibili zenak izan
zuen zer ikusi.




LORAMENDI Elkartek antolatutako poesia emanaldia. Joxean Artzek ekitaldi polita eskaini zuen. Aipamen berezia merezi du prestakuntzak. Antolaketa eta lekua oso aproposa zen. Esan behar da horrelako ekintza gutxi izaten direla herrian eta jendeak ondo erantzun zuela.

San Migelak argazkitan

Kukubiltxok kriston kalejira eskaini zuten. Ikusi zenuten balkoietatik gora ta behera ibili zena? Lapurretarako be...



Kontzertu bikaina gazteen eta nagusien Akordeoi Orkestak eskaini zuena. Atxabaltako bandak ere dotore jardun zuen.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55




*Artisau erakusketan eta
ferixa biologikoa
izan zen zer ikusi.
Aurten lehen aldiz
antolatu zen
ferixa
biologikoa eta
baita
patxaran
lehiaketa
ere.*




*Txotx!!!
Murrukixok kriston
sagardotegia montatu zuen.
Bakailau tortila, kupel,
bertsolari, txerrikume eta
guzti.*

*Antimilitaristek
antolatutako bazkariak
exito handia izan zuen.
Begiratu bestela zelako
ilada egon zen plazan,
ia 300 lagun eta ardi
baltza.*



*LORAMENDI Elkarteak
antolatutako Beinke-
Loramendi dantza oso
arrakastatsua izan zen.
Lagun askok partehartzeaz
gain plaza bete-beterik
izan zen dantzari
begira.*

*Hiruatz, Hirugarren
Mundu Taldeak
antolatutako
txapon bilketan
denetik lortu
zen, hasi
pezetetatik eta
500 pezetetakoak arte.
Baina lortu ete dute
Guinnessen lekurik?*



 **AITZIBER**
NIÑO
Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

LASA AGUILERA
Aholkularitza
Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

OSKAR
HARATEGIA
Loramendi,1
☎ 79 71 69

Guraso, irakasle eta ikasleentzat sexu-heziketa

HIES EKIMENAK antolatuta eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen laguntzaz, 7 eta 8. mailako irakasle, ikasle eta gurasoentzat, sexualitateari buruzko oinarrizko heziketa emango da Kurtzebarri eskolan.

Gurasoen programari dagokionez, Aretxabaletan eta Eskoriatzan emango da. 10 orduko iraupena izango du, egun bakoitzeko 2 ordu. Ondorengo egunetan emango da:

urriaren 5, 19 eta 26an eta azaroaren 2 eta 9an.

Ihardunaldietara joan gura duzuen gurasook, Kurtzebarri eskolan edo eta udaletxean eman behar duzue izena lehenbailehen.

Ikasle eta irakasleentzako ihardunaldiak barriz, bi zati izango ditu. Lehena 10 ordukoa, sexualitateari buruzko oinarrizko heziketan oinarrituko da. Bigarren zatia, teorikoa eta praktikoa izango da.

Bi eskulan ikastaro

Urriaren 2an hasita, astelehenetan, bi eskulan ikastaro emango dira kultur etxean. Lehena, 3,30etatik 5,30etara eta bigarrena 6etatik 8etara.

Irakaslea Mila Akizu izango da. Apuntatzeko jo bertara edo 79 01 05 telefonora deitu lehenbailehen. Kuota 3000 pezetakoa da.

Jubilatuen eguna

Datorren irailaren 30ean Jubilatuen Eguna ospatuko da Atxabaltan. Egun honetan, 65 urtetik gorakoek izango dute ondo pasatzeko arrazoirik. Egitarauari dagokionez, goizeko 11etan salda egongo da Basotxon, 12,30etan meza eta ostean, ordu 2etan, bazkaria. Bazkarirako menuan, hasteko esparragoak, legatz-budina eta marisko krema. Honen ostean, txekor erredondua barazkiekin eta bukatzeko tarta mantekauaz, kafea, kopa eta purua.

Bazkalostean, ohitura den moduan dantzaldia egongo da.

Jubilatu guztiak gonbidatuta zaudete egun honetarako. Ondo pasatzeko egun aproposa duzue.

Jubilatuentzako bidaiak

Aretxabaletako gizarte zerbitzuak ondorengo mezua bidaltzen dizue jubilatuztuen. Jubilatuei zuzendutako bidaietara joateko izen-emateko epea irailaren 26tik aurrera zabalduko da. Programa oraindik ez du jaso gizarte zerbitzuak eta horregatik bidai hauetara joateko asmoa baduzue bidai agentzietan galdetzea duzue egokiena, Arrasateko Eroski, Ecuador, Baskotour, e.a.

Untzilako jaiak

Untzilako jaiak urriaren 6,7 eta 8an ospatuko dira. Eguakotxean, jaiari hasiera emateko, auzo afaria antolatu da. Ostean LIZASO eta EGAÑA bertsolariak egongo dira eta bukatzeko Aintzane eta Goio trikitalariak. Zapatuan barriz, eguerdiko ordu batetan meza egongo da. Gaueko 10,30etan dantzaldia Lotxo taldearekin eta 11etan Murumendi Elkarteko XIV. bolo txapelketa. Jaiari azken eguna domeka izango da. Egun honetan 12,30etan meza egongo da eta ostean Nikolas Gardoki soinu-joleak girotuko du eguna.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



KELER



El Leon

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño
Medikua
Zaraia
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82
ARETXABALETA



ARETXABADAJOZ-ERANTZ OTE GOAZ?

*...Euskal Txokoetan platerik onena
Bermioko iguana pil-pilean
ta nekazariak landuko dituzte
kokoteruak pinuen ordez...*



*Martxoan, bere kapazitatearen % 100 zegoen Urkuluko urtegia.
Irailan barrez, % 64an*

Aspaldiko urteotan sarri aipatu izan da "Euskadi tropikal" batetarantz goazela, baina ideia hau ez da oso zehatza. Gure klima tropikaltzen baino hobeto mediterraneizatzen ari dela esan beharko genuke. Mundu mediterranearra zer den adierazteko adibide bat erabiliko dut: Jende gutxik esango luke Varsovian (Polonian) eta Balentzian euri kopuru bera egiten duela urtero. Gertatzen dena da Polonia aldean euria konstante ari duela eta Balentzian aldiz bi ekaitzek botatzen dute ur guztia eta gero sikutea dator.

Antzerako zerbaiten bidean doakigu Euskal Herria ere, urte osoko euri kopurua mantendu egiten da baina gero eta gaizkiago banaturik erortzen da.

Arazo honek hainbat kausa izan ditzake, esate baterako negutegi efektua. Baina guztien artean garratzitsuena deforestazioa (landarediaren galera) da. Esaera zahar batek dio erromatarren garaian katagorri batek Penintsula osoa zeharka zezakeela zuhaitzetatik jeitsi gabe, gaur egun ordea oso bestelakoa da.

Landarediaren garrantzia


Zuhaitzez betetako leku batean euriak baino garrantzi haundiagoa "ebapotranspirazioak" du, hau da, bizidunetatik ebapozten den urak. Zuhaitzek, nolabait esateko, ura birziklatu egiten dute ekosistema batean, eta honek basoaren superbibentzia baimentzen du sikute gogorra datorrenean ere. Baina zuhaitzik ezean ura erraz galduko da, inongo birziklapenik


gabe, eta ondorioz bizia desagertu egingo da. Iberiar penintsulan jadanik ia ez dago arbolarik, eta ondorioz klima mediterranearrak erraz egin du aurrera.

Aretxabaletan oraindik ez dugu arazo larririk, baina aurten Urkulu nahiko baju ikustean zenbait jende larritu egin da. Urkuluren jeitsiera hau ez da noski deforestazioaren edo negutegi efektuaren ondorioa izan, uda lehorrago bat tokatu zaigula, besterik ez. Aurtengo iraila hasieran urtegia % 64,40an zegoen, iaz aldiz % 73,70ean eta orain bi urte %86,10ean.

Oharra

Urte lehorrago bat jasan izanak ez du esan nahi Aretxabaleta Badajoz bihurtuko denik, baina azken aldiko tendentzia oso nabaria da. Etorkizun hurbilean instituzioek zorrotz zaindu beharko dituzte negutegi efektua sortzen duten CO2 emisioak eta baita Euskal Herrian ematen diren deforestazioak ere.

 **Mikel Arroiabe**



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko
Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia


Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Carlos Erañaren beatifikazioa

Carlos Eraña Guruceta, urriaren Iean Aita Santuak beatifikatuko du Erroman. Berarekin batera beste bi marianista ere beatifikatuko ditu, Jesus Hita Calahorrakoa, (Errioxa) eta Fidel Fuido, Yécorakoa (Araba).

Carlos Eraña, 1884. urteko azaroaren 2an jaio zen Azatzako Otalora baserrian. Gaurregun IKASBIDE heziketa zentrua dena (Mondragon Corporación Cooperativa), garai haietan Jauntxoen dorretxe izatetik baserri izatera pasatu zen. Bertan eman zituen Carlosek, famili xume batetan, bere lehen urratsak.



Carlos Eraña Guruceta (1884-1936) Bera hil eta 59 urtetara beatifikatua izango da



Carlosen ama, Josefa Guruceta Arriola.

Gure herrian jaiotako marianista honen beatifikazio prozesuak, 50 urte baino gehiago iraun du. Prozesu honetan, Carlosen giza-bizitza eta bizitza erlijioso gertutik ezagutu zuten pertsonen testigantza sakonki aztertua izan da.

Carlosen gaztaroa

Carlos Eraña, 1884. urtean jaio zen Azatzako Otalora baserrian. Familia xumekoa zen eta bertan jaso zituen aurrerantzean bidea egiten lagunduko zioten aztarnak, maitasuna, babesa, laguntasuna, e.a. Txikitatik konturatu zen aita-amek familia aurrera ateratzeko egiten zuten esfortzuaz eta berak ere azkar ikasi zuen etxeko lanetan laguntzen.

Nikolas Eraña Lizarralde izan zuen aita eta Josefa Guruceta :Arriola ama. Anai-arrebetatik hirugarrena zen Carlos. Beste bi

anai eta hiru arreba zituen, hauen izenak Luisa, Rosa, Ramona, Saturnino eta Agustin ziren.

Carlosen etxean hiru aditz nagusitzen ziren, eman, lan egin eta erreztatu. Errezuak garrantzi handia zuen Erañatar familian eta Carlos berak ere azkar ikasi zuen uzta ona eskatuz Jaungoikoari erreztatzen. Bere errezuak euskaraz egiten zituen, bere ama hizkuntza zen eta.

Zazpi urte aurretik Aretxabaletako parrokiaren konfirmatu zen. Gero, haundiagoa egin zenean, familiakoekin urtero Arantzazuko peregrinaziora joaten zen.

Azatzako eskolan egin zituen lehen ikasketak. Gainera, orduko eskolak erdaraz ziren eta ulertzeko eta espresatzeko eragozpena suposatzen zuen Carlosentzat.

1895. urtean, Eskoriatzako balnearioa konbentu bihurtu zen.

Lau urte beranduago Carlosek 14 urte zituenean Nuestra Señora del Pilar Eskoriatzako eskolan sartu zen. Ondoren 18 urte bete zituenean, Gasteizko Compañía de Mariara joan zen nobiziotza egitera. Hemendik barriz ere bere jaioterrira itzuli zen. Eskoriatzako marianistetan jarraitu zuen bere maixu formakuntza eta 21 urtekin lehenengo klaseak eman zituen. Ordiziako Santa Maria eskolan ere egon zen hezitzaile moduan. Ondo konpontzen zen ikasleekin, haiek ere erdara lehen aldiz entzuten zuten eta Carlosek euskaraz ematen zien klase batzuk.

Hainbat eskoletako zuzendari

1908. urtean Gipuzkoako lurra utzi eta Madrilera joan zen, bigarren kurtso akademikoa egitera. Bere ingurukoak laster

konturatu ziren Carlosen doaietaz eta honen ondorioz hainbat eskoletako zuzendari izatera heldu zen. 1916. urtetik bere heriotza arte esaterako, Ciudad Real, Tetuáneko eta azkenik Madrileko Nuestra Señora de Pilarreko zuzendari izan zen.

Carlosek 11 urte egin zituen Ciudad Realeko Concepzioko Institutu popularrean zuzendari lanean. Inguruko guztien errespetua eta maitasuna jaso zuen. Baina bere zuzendari lana hasi besterik ez zen egin, Afrikako Tetuán herrian beste misio bat zain zuen eta. 1927. urtean Carlosek Gibraltargo lurmuturra pasatu eta Tetuánera heldu zen. Hemendik aurrera Compañía de Maria marianista eskolako zuzendaria izango zen. Eskolara heldu zenean krisi gogor bati aurre egin beharra izan zuen, eskolako umeen kopurua asko jeitsia zegoen eta. Hala ere, Carlosek Tetuánen egon zen zazpi urtetan zehar jendearengan konfidantza irabaztea eta ikasleen kopurua gehitzea lortu zuen.

Erlijosioek benetan miretsi zuten Carlosek eginiko lana eta beraien gutunetan honela deskribatzen zuten marianista honen meritua: 'Carlosek joaten den tokian arazoak konpontzen ditu, badirudi Jainkoak arazoak konpontzeko bidalia izan dela'. Marianistek oso begiko zuten.

51 urtekin fusilatua

Carlos 1933. urtean Madrilera itzuli zen. Hemen beste kargu barri bati ebatu behar izan zion, Lehenengo Irakaskuntzako zuzendari lanari hain zuzen ere.

1936. urtean, Gerra Zibila hasi zenean Ciudad Realera joatea erabaki zuen Carlosek, bertan lagun haundiak zituen eta babesa aurkitu gura zuen haien artean. Baina Ciudad Realera heldu zenean, aldatuta aurkitu zuen herria, arrazoi politikoengandik

Pilarreko Amaren Eskola, Tetuánen. 1927. Carlos Eraña eskolako zuzendaria, beheko lerroan erdi-erdian dago



Pertsona apala zen eta bazuen umeei erakusteko doai berezi bat. Lagunen artean zubiak eraikitzea gurago zuen, hormak eraikitzea baino.



Azatza auzoan dago, Gerra Civilean hil ziren gizonen lapida. Hoi en artean, hirur marianistena

banatuta zegoen. Hasiera batean, Ramon Aragonesek babestu zuen, baina laster errepublikar tropen eskuetan jausi zen eta prisionero egin zuten, 1936ko irailaren 6an.


Egun batzutura, irailaren 18an hain zuzen ere, Carlos fusilatu egin egin zuten Guadiana ibaiko Alarcos zubiaren ondoan, beste zazpi seglarrekin batera.

Aretxabaletatik Erromara

Aretxabaletatik 19 lagun joango dira Erromara, datorren urriaren lehen egingo den ospakizunean parte hartzera. Horien artean, Carlos Erañaren familiartekoak daude, Zuatzu baserrian bizi den Felix Eraña esaterako, Carlosen loba da. Honez gain, hain erlazio zuzena ez duten Otala baserrietik ere joango dira. Batzuk 8 egunetarako, beste batzuk ordea 4 egunetarako.

Inguruko herrietatik, Arrasatetik esaterako 15 lagun joango dira eta Oñatitik hiru. Arrasaten, familiarteko zuzenak ditu Carlosek, Uribarriko Ibarreta baserriko Abarrategi-Eraña familiakoak.

Guk ere hemendik bidaia ondo egin dezatela opa diegu. Horrelako bidaiak ez dira sarri egiten eta gutxiago horrelako ospakizun bat ikusteko; herriko edo familiarteko baten beatifikazioa.



Hiru atxabaltar Dolomitasetan

Aretxabaletako hiru zikloturista, Jesus Rubio, Jose Angel Sanchez eta Jose Angel Oianguren Italiako iparraldean dagoen Dolomitasetan egon ziren abuztuan.

Bertako bost portu igotzeko asmoarekin joan ziren eta baita lortu ere. Abuztuaren 12an abiatu ziren Italiara kotxez eta egun bat behar izan zuten heltzeko. Andramari egunez, Gavia-ra igo zuten, (2.652 m). Honez gain, beste lau portu ere igo zituzten, Marmolada (Paseo Feida 2057 m.), Mortirolo (1880 m.), Estelvio (2750 m. Europako paso haundiena dugu berau) eta azkenik Cimas de Lavando (2320 m.).

Hiru zikloturista hauek, igandero bizikletaz ibilbideak egitera ohituta badaude ere, oso igoera gogorak izan direla deskribatu digute. Eguraldi txarra lagun izan dute, txingorra, hotza, e.a. baina hala ere Dolomitaseko inguruaz harrিতuta etorri dira; benetan polita ei da. Aurrera begira ere, beste asmo batzuk badituzte, Frantziako pirineoetatik bueltatxo bat e.a. Asteroko bizikletazko bueltatxoak hurrunago heltzeko aukera ere ematen dute.

*Goiko argazkian
Mortiroloko
portuan (1880 m.)
ageri zaizkigu hiru
atxabaltarrak.
Beheko argazkian
barrez, Estelvioko
portuan (2758 m.)*



Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

**IMANOL
JANARI DENDA**

Harategia

BEREZIKI Urdaitegia

Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



Eraikuntza bakarrean joango dira Ibarako futbol zelaiaren grada eta aldagelak

Laster hasiko dira Ibarako futbol zelaiko kirol instalakuntzen obrak. Urrian, obrak aurrera eramango dituen enpresa kontratatuko da. Horrela, urria eta azaroa bitartean hasiko dira Ibarako futbol zelaiko grada eta aldagelak eraikitzeko lanak.

Esan beharra dago, grada eta aldagelak edifizio bakarrean joango direla. Gradak aldagelaren gainekaldean eraikiko dira eta hauek ere estalitakoak izango dira. Edifizioa, futbol zelaiaren bankiloak dauden ostean eraikiko da.

Edifizio barriak, lau aldagela izango ditu. Honez gain, arbitroentzako aldagela, batzar gela, almatzen gela eta taberna ere edukiko ditu. Sei hilabete luzatuko diren obra hauen kostua 55 milioitakoa da. Beraz, dena aurreikusitako moduan joango balitz apirilera bukatuta egongo lirarteke aldagela eta gradak.

Behar bezalako aldagelak izango ditu Ibarako futbol zelaiak laster. Izan ere, oraingo aldagelak nahiko kondizio kaxkarrean daude eta UDAko direktiba, jokalaria eta sozioak, edifizio barria noiz hasi eta noiz bukatuko zain daude. Gainera negua gain-gainean daukagu eta eguraldi txarra egiten duenean, partiduak euripean ikusi beharrik ez du inongo graziaz egiten.



Edifizio barria Ibarako futbol zelaiko bankiloen ostean eraikiko da

UDAKo datorren ihardunaldiak

Pasatu barri den asteburuan UDAko preferenteek ez zuten emaitza onik lortu, 4-0 galdu zuten Zarautzarren kontra.

Datorren domekan etxean

jokatzea tokatzen zaie. Anaitasuna izango dute aurrez-aurre eta partidua 4,30etan hasiko da.

Bestalde, UDAko neskek datorren zapatuan hasiko dute liga. Oñatiarren kontra jokatuko dute eta partidua goizeko 11,45etan Ibaran izango da.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Berrikuntzak

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

FOTO

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30

EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

**Bukatu ziren bakazinuek!!!**

Ikasturtearekin batera eguneroko martxari ekin barri diote haurrek. Atzean gelditu ziren udako oporrak, bainujantzia jaztea, etxeko-lanik ez egitea, berandu jaikitzea. Orain barriz, goizean goizetik umeak motxilak aldean dituztela ikusten dira Aretxabaletako kaleetan barrena; batzuk alai beste batzuk triste.

Ikasturte barria irailaren 11n ekin zen gehienentzat, batzuk beranduago hasi zuten arren. Pausoka haurtzaindegiak barrez, txiki-txiki-entzatzat lehenago zabaldu zituen ateak, irailaren 4an hain zuzen ere.

Lehenengo astea lasaia izango zen, baina dagoeneko ikastetxe guztiek helduko zioten martxari.

Orain gainera, ikastolek bi urtetik aurrerakoak ere beregain izango dituzte; hauek urrian hasiko dute ikasturtea.

Aurrerantzean, gaztetxook egiten dituzuen lanak argitaratu gura ditugu atal honetan, beraz zeozer argitaratzeko edukitzen baduzue, poesia bat, idazlan bat, marrazki bat, e.a. bidali gure bulegora. (Aretxagazetara, Kultur-etxean). Gustora hartuko ditugu eta atal honetan ipini. Zuen idatzitxoak, arte-lanak beste umeek ere gustora ikusiko dituzte.

Besterik gabe animatu zaitetzte!!!

*Mahai aurrean egon
gara exerita
eta gainera pixkat
nerbioso jarrita
baina gero hobeto
konpondu gara ta,
kurtso hasiera hau
benetan polita.*

*Denetik euki dugu
aurreneko astean
mate, gizarte, natur
lehenengo egunean
eta beste guztiak
guk bigarrenean
hau errepiatuko
da ekainak artean.*

*Oporrak bukatuta
bagoaz lanera
gure lagun guztiak
berriro batera
irakasle ta ikasle
ostera elkartzera
gelan sartu gaitezen
eta ikastera.*

*Materiala erosi
dugu eskolarako
karpeta, liburuak
boligrafo asko
ikasteko gehienak
ez dira ezertako
zetako hainbeste gauza
ez erabiltzeko*

Xabier Pagoaga Otero

Araitz Garai Mondragon

Hortz klinika

Imanol Arrazola
Otxoa
Mediku-Odontologoa
Col. 405

Otalora 18 - 1.º D
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tf: 79 93 55

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

**“HERRASTI”
AKEITA**

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurt, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

SAGASTA**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

MARI-MERKE

Ikastolako materiala

Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

**AZKENA
TABERNA**

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



71ko irailaren 26an
Alkarrek Loramendi poeta
zenari eginiko omenaldia.
Argazkian erdian dagoen
gizona orduko
Aretxabaletako alkatea,
Santi Uribesalgo da
(Alkur)

Loramendi harriaren gorabeherak

Hil berritan egin zitzaion Loramendiri lehendabiziko omenaldia 1935eko uztailaren 2an. Aretxabaleta eta Arrasateren artean ordaindutako harria jarri zuten Bedoñan.

Baina hura ez zen azkena izan. Loramendi ez baina orduan haren omenezko harria bihurtu zen protagonista. Gerra bezperatan, sodaduak etorri ziren Mendibitzura (bere jaiotetxea). Baimen bila zetozen. Esandako harriak erdialdean lauburua zeraman. Gudariak beldur ziren erreketek zetozenean ikur horregatik harria hautsiko ote zuten, edozelako euskal zantzuk paradero hori baitzeukan.

Familiakoek matxete puntarekin lauburua kurioso-kurioso kendu zioten. Baina lan guztiak alperrikakoak izan ziren. Harria bota eta desagertu egin zen.

Urteak aurrera zihoazela gertaera bitxia gertatu zitzaien Aranatarrei. Joakinen koinatua, Jesus Errasti Aretxabaletako udaletxean barneko kartzelan eraikuntza konponketa batzuk egiten ari zela, horma gaineko aldera iritsi ezinka zebilela, estalita zegoen harri batera igo zen. Jaitsi zen harritik, eta hura sustoa!, gerra garaian desagertutako harria hara non azaldu zen.

Egoera eta gertaera hark merezi zuen bai beste festarik eta, ALKARek antolatu zuen Loramendiren hirugarren omenaldia 1971ko irailaren 26an eta olerkariaren izena duen kalean harria jarri zen. Bedoña auzokoak, barriz, harri haren berezko tokia auzoa zela eta hara itzuli behar izan zuten. Hala gertatu zen Loramendiren beste omenaldi bat. Harrezkero, Aretxabaletan dagoen harria Bedoñakoaren kopia da.

Trankil, orain ni nator eta



M.J. Aretxaga

Joan zen astean malkoz bete ziren zuen begiak, J.J. Aretxagak alde egiten zigulako. Ez dakit zergatik (ez zen hainbesterako).

Ahaztu zuen penak, hemendik aurrera neu izango nauzue zuen kotileo emaile barria. **M.J. Aretxaga** naiz, zuen J.J. maitearen arreba gaztea, lasai beraz ni ere ondo informatuta egongo naiz eta.

Irrikitan egongo zarete San Migeletan ze bikote barri egon diren jakiteko, baina gatozen kontu serioetara. Jaietan ez da parranda bakarrik egon, txapelketak ere asko izan dira. **Jose Lonbide** atxabaltarrak bi sari eskuratu zituen, bigarrena izan zen produktu biologikoen txapelketan eta hirugarren patxaran lehiaketan, (patxaran zaleok badakizue norengana hurbildu). Ni ere gustora izango nintzen epaile lanetan, ia datorren urtean gonbidatzen nauten.

Aipatu behar da ere, artisau erakusketan izan genituela atxabaltar ordezkariak. **Blanka Perearen** artelanak liluraturik utzi gintuzten danok. Nik ere habilitade hau banu... **Dionisio Antoñanak** erakutsitako arran erakusketak exitoa izan zuen txikienen artean, zarata majua ateratzen zuten.

Beste txapelketa gogor bat, ilundute gero bukatu

zena, muslariena izan zen. Hemen **Gabilondo** eta **Etxabe** nagusitu ziren eta euren aurkariak finalean **Igor** eta **Carlos** izan ziren.

Intsumisuen bazkarian bapo jan eta gero (honeik bai dakitela herri bazkariak antolatzen), zozketatu zuten ardi baltza honez gero Zumarraga aldien izango da, zelai edo kazuela baten, **Edurne Astigarraga** lora zikuen erakusketa jarri zuenak eraman zuen eta.

Faunarekin jarraituz, Murrukixokoek ere txarrikuma batzuk zozketatu zituzten. Ez dakit zeini tokatu zitzaion, niri behintzat ez, bata Mondrau aldera joan da eta Untzila aldera bestea.

Txarrikumeen kurrixkak baino finagoak izan ziren arratsaldean plazan entzun eta ikusi ziren kantu eta dantzak; abesbatza eta Loramendikoen eskutik. Baina aurtan be mutilak gutxiago, lotsatiak bazarete gero...

Saio txukuna Atxabaltako pelotariak egin zutena ere. **Errasti anaiek** izerdia bapo botata gero 22-20 irabazi zioten **Ubera-Iñurrategi** bikoteari.

Gainditu ezinak ematen dutenak beste **Iñurrategi** batzuk dira, **Felix eta Alberto**. Cho-Oyu igo eta gero Lhotseko gailurra ere lortu dute. Zorionak!!

Gaillurretaz hitzegiten, gailurra jo duen beste atxabaltar bat **Marta Izagirre** da. Arrasate musikaleko zuzendari izendatu dute. Zorionak! (Atxabaltarrok Arrasateko inbasioaz jarraitzen dugu).

Eta beste zoriondu beharreko bat ere badugu, gure aldizkariari toke artistikoa eman diona. Lagun hau **Mikel Arroiabe** dugu.

A R E T X A Z O K A

LANA

- 8. mailako klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Euskeraz emango dituen. 79 82 14 telefonora deitu eta Isabelegatik galdetu.

- 1. go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19

- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hirugarren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.

ETXEBIZITZA

- Neska bat jende bila dabil Arrasaten pisua alokatzeko. Deitu 6 t'erdietatik aurrera (94) 6167446 telefonora eta Sorkundegatik galdetu.

- Garaje bat erosi edo alokatuko genuke Lausita auzoan. Telefonoa 79 64 06 da.

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gaez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47

Gasteizen, unibertsitatetik gertu, bi ikaslerendako pentsio osoa eskaintzen da. Deitu (945) 26 73 28 telefonora. (Patxi).


IKASTAROA MARGO LAGUNAK

Helduendako margo klaseak ematen ditugu. Eguazten eta ostegunetan 7,30etatik aurrera. Apuntatu lehenbailehen pintura lokalean (kultur etxean).

Orrialde hone-tako iragarkiak (Iana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

Antonio Romero

“Aretxabaleta, Euskadiko herririk onena da”



Badajozen jaioa dugu Antonio. Hala ere ondo ezagutzen du Aretxabaleta, 11 urtekin ona etorri zen eta. Gure herrira etorri zenetik Aretxabaleta asko hazi dela esan digu.

- **Nola hasi zinen harotz lanetan?**
14 urtekin hasi nintzen. Felix Arenazarekin hasi nintzen lanean. Gero Santiago Herrartekin ibili nintzen. Eta orain dela 12 urte gutxigorabehera bi lagunek, Jose Ramon Alberdi eta biok enpresa zabaldu genuen.
- **Gustatzen zaizu harotz lana?**
Bai. Harotz ikasketarik ez dut egin, apendiz moduan hasi nintzen, 3. mailako apendiz, gero 2. mailakoa eta azkenik lehenengo mailako apendiz izatera iritsi nintzen.
- **Zer nolako lanak egiten dituzue?**
Denetarik egiten dugu, hasi mahaietatik, ate, etxeko sukaldeak, lurak, e.a.
- **Zuk bereziki ze lan egiten duzu?**
Nik gerente lana egiten dut, baina egia esan denetik, ofizialista, harotz lana, e.a.
- **Lan gogorra da?**
Gogorra ez baina bezeroak asko aguantatu behar dira.
- **Laneko lehen hilabetea gogorra izan da?**
Lehenengo hiru egunak izan ziren gogorrenak.
- **Non jaio zinen?**
Badajozen.
- **Noiz etorri zinen Aretxabaletara?**
Orain dela 29 urte, 11 urte nituela. 14kin lanean hasi nintzen.
- **Gustora bizi zara Aretxabaletan?**
Bai, Euskadiko herri onena da.
- **Ze da Aretxabaletatik gustokoen duzuna?**
Paisaia asko gustatzen zait, honez gain hemengo jendea ere asko gustatzen zait, oso zabala eta sinplea dela iruditzen zait.
- **Poteatu non?**
Ez daukat txikiteoan egiteko ohiturarik. Kafea eta puroa, hori bai.
- **Oporretan non izan zara?**
Lehenengo Segovian, gero Sanabriako lakuan (Zamoran) eta azkenik Badajozen.
- **Zer da telebistatik gehien gustatzen zaizuna?**
Berriak eta dokumentalak.
- **Kirolrik praktikatzen duzu?**
Bai, bizikleta eta futbola.
- **Nolakoa da zure izakera?**
Pertsona sinplea naiz.



Pauli Guridi dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

Zorionak !!!

KILOMETROAK LEHIAKETA

Hona hemen KILOMETROAK 95 jaiaren abestia:

Argiak ura urrezta. Heldu da lkastolen festa: aurten ere izan dadila jendez ta pozez gainezka.	Basoan eder haritza. Ez dezagun, ez, gal hiitza! Ate orotara moldatu gure hizkuntzaren giltza.
Ez gaitu izutzen geroak. Gure bihotzak, beroak. Jaso dituzala Donostian euskarak bere hegoak!	ZUREA ETA NIREA EUSKARAREN BIDEA
ZUREA ETA NIREA EUSKARAREN BIDEA	Erleak gozo ezlia Kito hemen abestia. Gora gure Kilometroak eta gora Donostia.
Hogei ken bat, hemeretzi. Ez dezagun inoiz etsi: euskarak behar gaitu eta euskarari zintzo eutsi.	ZUREA ETA NIREA EUSKARAREN BIDEA

KILOMETROAK lehiaketarekin jarraitzen dugu. Beheko galdera asmatzen duzuenon artean KILOMETROAK jaiko 5.000 pezetako materiala zozketatuko da. Bidali erantzuna, kultur etxean dagoen buzoira edo postaz bidaliz gero Aretxagazeta, 151 postakutxatila, 20550 Aretxabaleta.

Zein orrialdetan dago KILOMETROAK 95 jaiaren logotipoa?

*Aurreko aleko erantzuna "13. orrialdean" zen.

Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

OÑATI



Irailak 28,29 eta 30 eta urriak 1 eta 2 San Migel eta Errosario jaiak

Irailak 29

KUKUBILTZO

Arratsaldeko 5,30etan Foru Enparrantzan **Kukubiltzo** taldeak "Jaiotza" antzezlan antzeztuko du.

GAZTELUBIDE

Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **Gaztelubide** antzeztutako antzezlan: "Il Ladrone".

Irailak 30 zapatua

EKEKEI

Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **Ekekei** taldea. Antzezlan: "Hiltegia".

Urriak 1 domeka

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Arratsaldeko 5,30etan ZUBIKOA KIROLDEGIAN "Txirri, Mirri eta Txiribiton" "Allakuidaus" antzezlan antzeztuko dute.

Urriak 2 astelehena

TRAPU ZAHARRA

Eguerdian kalean **TRAPU ZAHARRA** antzerki taldeak "Visto y no visto" obra antzeztuko du.

Urriak 6 eguakotxa

BERTSO JAIALDIA

Gaueko 10,30etan izango da, Oñatiko Zubikoa pilotalekuan.

Urriak 7 zapatua

V. SAN MIGEL GOITIBEHERA JEITSIERA


Arratsaldeko 4,30etan izango da.

Urriak 12 eguena

SAN MIGELETAKO VIII. MOUNTAIN-BIKE IRTEERA

Goizeko 10etan izango da.

ARRASATE



Irailak 29

SAN MIGEL JAIK GARAGARTZA AUZOAN

Irailak 30 zapatua

KONTZERTUA

Camara de Gipuzkoak kontzertua eskainiko du, arratsaldeko 8etan Amaia Antzokian.

Irailak 28 urriak 8

PINTURA ERAKUSKETA

Harresi aretoan **Gloria Martinezen** pintura erakusketak ikusgai egongo dira.

Urriak 6 eguakotxa

MARITXU KAJOI

GERONTOLOGIAKO IKASTAROA


ICTE institutuak Gerontologiako ikastaroa antolatu du. 180 orduko iraupena du eta azaroaren 2tik maiatzaren 30era emango da. Ordutegia, astearte eta ostegunetan 5,30etatik 8etara artekoa da. Izen emateko azken eguna urriaren 23a da. Izen emateko, 79 02 11 edo 77 05 00 telefonora deituz edo Arrasateko Loramendi kaleko 4. zenbakian egin dezakezue.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozotegia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Mitarta. 1 - Tfn. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ARETXABALETA



Irailak 30 zapatua

JUBILATUEN EGUNA

Ikus egitarau berezia

Urriak 1 domeka

ZIKLOTURISTEN URTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Arroiabe-Durana-Legutiano-Zubizabal-Otxandixo-Legutiano-Landa-Kurtzeta-Aramaio-Arrasate-Aretxabaleta. Guztira 76 Km egingo dituzte. 9,30etan izango da urteera Zاراia kaletik.

KILOMETROAK

Aurten Donostiako Gros auzoan

Urriak 8 domeka

EGUN KULTURALA

Zاراia M. E. egun kulturala ospatuko du.

HAURREN EGUNA

Ikus egitarau berezia

ZIKLOTURISTEN URTEERA

Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Eroski-Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Eroski-Arlaban-Dorleta. Guztira 59 Km izango dira. Urteera goizkeko 9,30etan Zاراia kaletik. Hau izango da zikloturistek aurten egingo duten azken ibilbidea, tenporada hemen bukatzen zaie eta. Orain datorren urterarte itxoin beharko dute. Aurten ibilbide guztiek osatzen zuten Km kopurua 2215 izan da.

KILOMETROAK jairako autobusa

KILOMETROAK 95 jaira joateko autobusa antolatu du **LORAMENDI Elkarteak**. Autobusak goizeko 9,15etan irtengo du Azbetik, eta itzulera ordua 8etan da. Ordaina 1000 pzta.

Apuntatzeko barriz, Loramendiko lokalean edo eta Arlutzen egin dezakezue, irailaren 28a baino lehen.

Urriak 7 eta 8

PIRINEOETARA URTEERA

MURRUKIXO M. E. **Midi de Ossaura** antolatu du urteera datorren urriaren 7eta 8rako. Mendi honetara joan gura duenak Murrukixon eman dezake izena.

Urriak 6, 7, 8

UNTZILAKO JAIK

Urriak 15 domeka

NAFARROA OINEZ

Aurten Tuteran ospatuko da **NAFARROA OINEZ** urriaren 15ean.

Bertan lan egiteko jendea behar da. Joan gura izan ezker **LORAMENDI** Elkartean eman behar duzue izena lehenbailehen edo eta telefono honetara deitu, 77 09 70

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdia (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA


ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

GIDARI ESKOLA BERRIA ARETXABALETAN


LARRINGAN



Informa zaitez



Basabe Poligonoa F-0-7 • Tfnoa. 79 64 50



**Aupa mutilak,
biak lortu dituzue!!!**

**Cho Oyu (8.201m.)
Lhotse (8.516 m.)**

Zorionak

Alberto, Felix eta Fernando